

Pintura ikastaroa

Bilboko Arte Ederren Museoa
Gondra Barandiarán Fundazioa
2020.10.28 - 2020.12.17

Funtsezko kopiagintzaren hastapenak.

Museoko kopiagintzaren
bitartez pinturan
murgilduz

Deialdia eta helburuak

Gondra Barandiarán Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioak honako ikastaro honen deialdia egiten dute: «*Funtsezko kopiagintzaren* hastapenak. Museoko kopiagintzaren bitartez pinturan murgilduz». Pinturan eskarmentua dutenei zuzenduta dago, eta Luis Candaudapek koordinatuko du -margolaria eta UPV/EHUko Pintura Masterrean kolaboratzailea-.

Funtsezko kopiagintzaren kontzeptuak pinturaren utopia honi egiten dio erreferentzia: irudia errealitate zehaztasun ia osoz hurbil daiteke, horrela, errealitate horren fede emanez. Ikastaroa -gutziz praktikoa- aurkakoaz jardungo da; izan ere, errealitatea aldakorra dela du abiapuntu, eta, gainera, pertsonen inguruarekin dituzten harremanen araberakoa, inguru horretaz egiten dituzten errepresentazioen bidez. Ikastaroaren abiapuntua ereduakopia deitu ohi dena da. Xedea hau da: museoko obrek gaur egungo sortzaileari ematen dioten aukera areagotzea; horrela, autore jakin batzuen lan egiteko moduarekin lotura sortu nahi da.

Helburuak dira obraren funtsa hautematea, margotzeko ideia baten arabera prozeduraren aplikazioa ulertzea, kopia-jarduera eta behaketa sortze-lanerako erabiltzen ohitzea eta aurreikusten den formatua sortzaile-ikuspegitik gauzatzea. Hala, behaketa, gogoeta eta margotzea bera modu interesgarrian elkartzen dira; pinturak berezkoa duen harreman-lengoaiarekin bat etorritik, gorputzaren baliabide guztiak lanean jartzen ditu.

Gondra Barandiarán Fundazioaren babesari esker egingo da ikastaro hau. Haren fundazio-helburuen artean hau azpimarra dezakegu: edozein modutako jarduerak zientifiko, tekniko, artistiko eta kulturalak sustatu, garatu, babestu eta bultzatzea; horretarako, formakuntzarako laguntzak ematen ditu, eta pentsamendu bidezko sorkuntza bultzatuko duten ekimenak programatzen ditu.



Parte-hartzaileak

Pinturan eskarmentua duten adin nagusiko pertsonak. Ikastaroaren edukiarekin lotutako goi mailako titulurik izatea ez da beharrezkoa.

Leku kopurua

8.

Datak

2020ko urriaren 28tik 2020ko abenduaren 17ra (aurkezpena, urriaren 26an).

Iraupena

16 saio, bi ordu eta erdikoak (denera: 40 ordu).

Ordutegia

Asteazken eta ostegunetan, 17:00-19:30.

Tokia

Bilboko Arte Ederren Museoa.

Materialak

Museoak astoak eta zoru-babesa emango dizkie parte-hartzaileei. Gainerako materialak (pinturak, paleta, mihisea, etab.) parte-hartzaileen kontura egongo dira.

Tarifak

Bilboko Arte Ederren Museoaren Lagunak: 120 €
Gainerakoak: 140 €

Gondra Barandiarán Fundazioak parte-hartzea doan izateko bi beka emango ditu.

Matrikulan sartzen da: ikastaroan parte hartzea, ikastaro-egunetan museora doan sartzeta eta Bilboko Arte Ederren Museoak jaulkitako parte-hartze agiria.

Matrikula

Hautagaiak aurkeztea

2020ko urriaren 1etik 15era.

E-mail honen bidez: cursodepintura@museobilbao.com.

Adierazitako epetik kanpoko hautagaitzarik ez da onartuko.

Dokumentazioa

- NANaren edo baliokidea den dokumentu baten kopia.
- Eskatzen duenaren kontaktu-datuak dituen dokumentua (telefonoa eta posta elektronikoa) eta aurkezpen-gutun laburra parte hartzeko arrazoiak adieraziz (gehienez, 400 hitz). Gondra Barandiarán Fundazioak ematen duen bekarako hautagai izan nahi izanez gero, testuan berariaz adierazi beharko da.
- Dossier bat eskatzaileak egindako 5 obrarekin; horien izenburua, teknika eta neurriak adierazi behar dira.
- Artxibo bakarrean bidaliko da, pdf formatuan (gehienez, 10 Mb)

Museoak, beharrezko jotzen badu eta edozein unetan, eskatzen diren dokumentuen originalak eska ditzake.

Adierazitako epean eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duen hautagaiari, gehienez ere hiru lanegunetan huts hori konpon dezan eskatuko zaio. Epe hori igaro ondoren, zuzenean baztertua izango da.

Hautaketa

Hautagaien ebaluazioa eta bi bekak jasotzeko pertsonak hautatzea honako irizpide hauen arabera egingo da:

- Motibazio-gutunaren interesa.
- Obren dosierak duen kalitate artistikoa.

Museoa hautatutako pertsonekin harremanetan jarriko da, telefonoz eta e-postaz, 2020ko urriaren 16an.

Formalizatzea

2020ko urriaren 19tik 21era.

Matrikula gauzatzeko, ikastaro osoa ordaindu behar da, eta ordaintza-agiria e-postaz bidali behar da.

Matrikularen zenbatekoa ez da itzuliko, salbu eta bertaratzea ezinezkoa egiten duen ezinbesteko arrazoiaren bat badago; horrelakoetan, egiaztatu egin beharko da.

Parte-hartzaileen betebeharrak

- Saio guztietan parte hartzea.
- Osasun-protokolo guztiak betetzea.
- Museoan kopiak egiteko arauak betetzea.
- Ezarritako ordutegia betetzea.

Garapena

Ikastaroa koordinatzaileak gainbegiratu du, tutoretza eta jarraipena eginez.

Bertan behera uztea

Adierazitako betebeharrak ez jarraitzeak museoa baimenduko luke ikastaroa bertan behera uztera, legozkiokeen bestelako ekimenak gorabehera.

Oinarrien aldaketa

Museoak erabaki lezake oinarri hauek aldatzea; horretarako, eta baliozko izateko, nahikoa izango litzateke haren webgunean argitaratzea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, edo edozer gauza kontsultatzeko, jar zaitez harremanetan museoko Jardueren sailarekin, telefono honetan: 944 39 60 60, edo posta elektronikoko bidez: cursodepintura@museobilbao.com.

Bilboko Arte Ederren Museoan kopiak egiteko arauak

«Funtsezko kopiagintzaren hastapenak. Museoko kopiagintzaren bitartez pinturan murgilduz» pintura-ikastarorako hautatutakoek, Bilboko Arte Ederren Museoaren funtseko obren kopia partzial edo osoak egin baino lehen, ezarririk dauden arau hauek onartu beharko dituzte::

1. Erreproduktzioaren neurriak ezin dira inoiz izan originalaren neurri berak.
2. Kopiatzeko baimena eman ondoren, kopiatzaileei «Pintura ikastaroa» dioen txartel bat emango zaie, eta ezarritako museoaren ordezkariari erakutsi beharko diote une oro.
3. Originalen neurririk ezin da hartu; ez dago inola ere haiek ukitzerik.
4. Kopiatzeko erabiltzen den materialarekin zorua ez zikintzeko eta hondatzeko arreta berezia jarri behar da; hala, zoruan babes egokia jarri beharko da, egoerak hala eskatzen badu.
5. Astoen kokapenak ezin du eragotzi publikoak, oztoporik gabe, ikastaroko partaideak kopiatzen ari diren obrak ikustea.
6. Astoak, eserlekuak eta erabilitako material guztiak erretiratu egin beharko dira kopia-lanak amaitutzat ematen diren unean.
7. Aurreko xedapen horietakoren batean hutsegitea eginez gero, museoaren zuzendaritzak bertan behera utz ditzake emandako baimenak; gainera, obra hondatuko balitz, erantzukizunak eskatuko litzuzke. Bestalde, baimenek indarrean egoteari utziko diote pintura-ikastaroa amaitzen denean.